



Teatro Gayarre



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala

# Gayarre Eskolan



2009/2010eko programazioa

## *Ikuskizun didaktikoak ikastetxeendako*

Casa de muñecas 3

Don Juan 4

¿Qué cuesta el hierro? 4

La fuga del arroyo 5

Antzerkiaren gauza miragarriak 6

## *Bigarren Hezkuntza Deskontuak dituzten ikuskizunak*

Pagagnini 7

El caballero de Olmedo 8

## *Lehen Hezkuntza Deskontuak dituzten ikuskizunak*

El libro de la selva 9

Secretos 9

Los sueños de color del doctor Frankenstein 10

Haur jolasak 10

Sesamoireki zaitetz! 11

Nora zoaz, txanogorritxu? 11

## Casa de muñecas

2010eko otsaila Hilak 23 eta 24, asteartea eta asteazkena  
10:00etan

Egilea: Henrik Ibsen.

Zuzendaria: Miguel Munárriz.

Antzezleak: Marta Juániz, Carlos Ibarra, Pablo del Mundillo, Leire Ruiz, Miguel Munárriz, Carol Verano.



“Casa de muñecas” Norvegiako Henrik Ibsen dramaturgo eta poetaren obra gorena da. Ibsen Norvegiako dramagilerik garrantzitsuenen da eta gaur egungo dramaturgian gehien eragin duen egiletariko bat. Egungo drama errealistaren aita da eta antzerki sinbolikoaren aitzindaria. Ibsenen testuek ez dute gaurkotasunik galdu, eta, garaikideak ez diren idazleen

artean, gaur egun gehien antzezten den egiletariko bat da. Nora, antzezlaneko protagonista, nahitaezko pertsonaia da literatura dramatikoko unibertsean.

Gayarre Antzokia Udal Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak ekoitzia



**Nafarroako  
Gobernua**

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat  
Gidaliburu didaktikoa du

Argibideak eta izen-emateak:

Telefonoa: 948 20 65 93

Ordutegia: 09:00-14:00

SARRERA DOAKOA, aurretik erreserba eginda



**HENRIK IBSEN (Norvegia, 1828-1906)** egile nagusietariko bat da antzerki unibertsean berritzeko prozesuan. Egungo dramaren sortzailetzat jo da, psikologia eta gizarte arazoak jorratzen dituzten obra errealistak idatzi zituelako. “Casa de muñecas” ez ezik, “El enemigo del pueblo” edo “Los pilares de la sociedad” ere idazteagatik hartu du ospe handia.

## LAN TXIKIAK ETA EGILE HANDIAK

### Don Juan, memoria amarga de mi

2009ko azaroa

Hilak 2, astelehena

20:00



**Testuak: Tirso de Molina, José Zorrilla, Molière eta Josep Palau i Fabre.**

Miquel Gallardo eta Paco Bernalen bertsioa

Taldea: Pelmánec Teatre.

Zuzendaria: María Castillo.

Antzezlea: Miquel Gallardo.

Aktore bat eta hiru txotxongilo agertokian. Don Juan antzeztu izan da ikuspegi desberdinetatik, eta, horietan guztietan, emakumeen zigortzaileak arau guztiak urratu ditu, eta heriotzaren bila dabilen gizartearen aurkako gizakia da. Hemen, heriotzak alde eginen dio, eta izan duen iraganari aurre emana bizitzera beharturik dagoela ikusiko du pertsonaiak. Hala ere berarendako ezezagunak ziren sentimenduak aurkitzeko aukera izanen du.

### ¿Qué cuesta el hierro?

2009ko azaroa

Hilak 16, astelehena

20:00

Egilea: Bertolt Brecht.

Taldea: La Ortiga TDS.

Zuzendaria: Ángel Sagüés.

**Antzezleak:** Iratxe García Uriz, Eneko Otermin, Ion Iraizoz, Joseba Morrás, Santi Litago eta Txori García Uriz.

"¿Qué cuesta el hierro?" parabola, alegia da. Hitzaurreak esaten duen bezala, obra ez da egiazko gertakizuna balitz bezala antzezten, didaktika baliabide gisa baizik. Pasioak, baldintzak edo portaerak haragitu beharrean, herrialdeak pertsonifikatzen ditu Brechtek.



**BERTOLT BRECHT (Alemania, 1898-1965)**

*XX. mendeko dramagile nabarmenatariko bat da, eta antzerki epikoaren sortzailea.*

*Konpromiso politikoa izan zen bere obren ezaugarria, eta borrokaren ikur bilakatu zituen ideiak eta pentsamenduak adierazi zituen.*

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat

Argibideak eta izen-emateak: 948 20 65 93

Ordutegia: 10:00-14:00

SARRERA DOAKOA, aurretik erreserba eginda

## INTERPRETATZAILE HANDIEN ZIKLOA

### LA FUGA DEL ARROYO. Un paseo por el alma de Anna Magdalena Bach

2010eko otsaila

Hilak 2, asteartea

20:00



“La pequeña crónica de Anna Magdalena Bach” liburuan oinarritua.

**Interpretatzaileak:** Anna Przylecka (biolina), Tomasz Przylecki (biolontxelo), Adela Martín (pianoa), Marta Juaniz (aktorea).

“La fuga del arroyo. Un paseo por el alma de Anna Magdalena Bach” kontzertu dramatizatua da. Bachen lanak joko dituzte, baina organo-jotzaile eta musikagile alemaniar bikainaren bigarren emazte izan zenaren bizitza eta memoriak izango dira haria, hain zuzen, Anna Magdalena Wilcken

sopranoarenak (1701-1760). Sentimenduen eta bigarren emazte horren laguntzaren bidez Bachek izan zuen esperientzia kontatzen du ikuskizunak. “La pequeña crónica de Anna Magdalena Bach” liburua du oinarri proposamen dramatiko-musikalak. Ez badago frogatuta ere, uste da liburu hori Anna Magdalenak berak idatzi zuela.

**Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat**

**Argibideak eta izen-emateak:**

**Telefonoa:** 948 20 65 93

**Ordutegia:** 10:00-14:00

**SARRERA DOAKOA, aurretik erreserba eginda**



**JOHAN SEBASTIAN BACH (Alemania, 1685-1750)** Alemaniako organo-jotzailea eta musikagilea izan zen, barroko garaikoa, eta historian izan den musikari familia apartenatariko bateko ahaidea (120 musikari inguru). Bere obra oparoa musika barrokoaren une gorena da, musika unibertsalaren eta mendebaldeko musika pentsaeraren gailurra.

## Antzerkiaren gauza miragarriak

2009ko urria	19, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2009ko azaroa	9, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2009ko azaroa	23, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2009ko abendua	14, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko urtarrila	18, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko otsaila	1, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko otsaila	22, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko martxoa	22, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko apirila	19, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko apirila	26, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko maiatza	10, astelehena	09:15ean eta 11:00etan
2010eko maiatza	17, astelehena	09:15ean eta 11:00etan

**Proiektua gauzatzea:** Gayarre Antzokiko Nafarroako Eskola  
**Pedagogia zuzendaritza eta gidaritza didaktikoa:** Maite Pascual.

**Dramaturgia eta zuzendaritza:** Ramón Vidal, Emilia Ecaý.

**Antzezleak:** Eva Azpilicueta, Iván García, Guillermo López, Mikel Mikeo, Ainhoa Ruiz, Mónica Torre.



Gayarre Antzokiak eta Iruñeko Udaleko Hezkuntza Alorrak "Antzerkiaren gauza miragarriak" programa lantzen jarraitzen dute. Haurra antzerkiaren munduan sar dadila lortzeko asmoz, ikuskizuna bisita gidatu moduan egiten da, eta bisita horretan Urrezko Mendeko sei komedianteren konplize bihurtuko dira.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleentzat

Euskaraz eta gaztelaniaz  
Gidaliburu didaktikoa du

Argibideak eta izen-ematea  
Telefonoa: 948 420 507  
Ordutegia: 10:00-14:00

Gayarre Antzokiaren  
ekoizpena



Ayuntamiento de  
Pamplona  
Iruñeko Udala



# Pagagnini

2010eko otsaila

Hilak 6, larunbata

20:00

**Sortzailea eta zuzendaria:** Yllana, Ara Malikian.

**Zuzendaritza artistikoa:** David Ottone, Juan Francisco Ramos

**Musika zuzendaria:** Ara Malikian.

**Antzezleak:** Ara Malikian, Eduardo Ortega, Gartxot Ortiz, Fernando Clemente.



Inork ez luke pentsatuko jauzi egin, lurrean irauli, elkarrekin borrokatu eta ikuskizunean bertan lotan gelditzen direla ikustean. Baina "Pagagnini" antzezlanaren lau interpretatzaileak musikari profesionalak dira, orkestra ospetsuetan arituak. Hala ere, egia esan, begiak ixtearekin eta bere keinu iragarriak ahaztearekin aski da atxikia duten birtuosismoa antzemateko. Musika klasikoaren eta umorearen arteko ezkontza obraren oinarria da. Yllana Teatro

antzerki konpaikiaren eta Ara Malikian —Armenia jatorria duen libanoarra— biolin-jotzaile ospetsuaren arteko topaketaren fruitua da. Emaiza emanaldi klasiko bati buruzko parodia da, izugarri barregarria, eta ikusleen grina piztuko du ikaragarri.

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat

PREZIOA

20 ikasletik gorako taldeak: 6 €

Argibideak eta izen-emateak:

Telefonoa: 948 20 65 93

Ordutegia: 10:00-14:00



**NICCOLÒ PAGAGNINI (Italia, 1782-1840)**

*biolin eta biola jotzailea, gitarra jotzailea eta musikagilea izan zen. Bere garaiko birtuoso handienetariko bat izan zen, inoiz izan den biolin jotzailerik handienetariko bat. Dohain apartak zituen: belarri absolutua, intonazio bikaina, arku teknika adierazkorrak eta staccato eta pizzicato gisako tekniken erabilpen berriak.*

# El caballero de Olmedo

2010eko martxoa

Hilak 12, ostirala

20:00

**Egilea:** Lope de Vega.

**Zuzendaria:** Fernando Urdiales.

**Antzezleak:** Borja Zanmorano, Rosa Manzano, Luis Miguel García, Verónica Ronda, Patricia del Amo, Rubén Pérez, Borja Semprún, Julio Lázaro, Jesús Peña.



Lope de Vegaren "El caballero de Olmedo" antzezlanak da Teatro Corsario taldearen ikuskizun berria. Duela gutxi, konpainiak jaso du, besteak beste, antzerki klasikoari ekarpena egiteagatik ematen den saria. Beste drama batzuetan bezala, Loperen abiapuntua zen herriak kantatu, kontatu edo dantzatzen zituen istorioak. XVI. mendearen hasieran, Olmedo herriko kapare bat erail zuten Medinatik

Olmedora doan bidean. Erromantze batean bildu zen gertakaria. Istorioak dantza bat sortu zuen, eta, geroago, aldaketa batzuk izan zituen kontaktak. Dramaren lanketa aparta eta Lopek erabiltzen dituen osagaien nahasketa eraginkorra (tradizioa, folklorea, komedia eta tragedia) direla eta, "El caballero de Olmedo" maisulana da.

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat  
Gidaliburu didaktikoa du

**PREZIOA**

20 ikasletik gorako taldeak: 6 €

Argibideak eta izen-emateak:

Telefonoa: 948 20 65 93

Orduetgia: 10:00-14:00



**FÉLIX LOPE DE VEGA Y CARPIO (Espainia, 1562-1635)** *Espainiako Urrezko mendeko poeta eta dramagile handienetariko bat da, eta, bere obraren hedadura kontuan harturik, literatura unibertsaleko egile emankorrenetariko bat. Asmamenen*

*Fenix eta Naturaren Munstro Miguel de Cervantesek deitua, Espainiako antzerkiaren formulak berritu zituen, antzerkia kultura eta masa ikuskizuna izaten hasi zen garaian. Tirso de Molina eta Calderón de la Barca idazleekin batera, Espainiako antzerki barrokoaren adierazgarri nagusia da.*

BARCELÓ PRODUKZIOAK

## El libro de la selva

2009ko abendua Hilak 27, igandea 12:00etan eta 18:00etan

Rudyard Kipling egilearen kontakizunaren egokitzea.  
Musika antzerkia.



MAGO MAG LARI

## Secretos

2009ko abendua Hilak 28, astelehena 12:00etan eta 18:00etan

Idea, gidoia eta zuzendaritza: Josep Maria Lari.



**PREZIOA**

20 ikaslelik gorako taldeak: 3 €

Argibideak eta izen-emateak:

Telefonoa: 948 20 65 93

Ordutegia: 10:00-14:00

PRAGAKO ANTZERKI BELTZA

## Los sueños de color del doctor Frankenstein

2009ko abendua Hilak 29, asteartea 12:00etan eta 18:00etan

Antzerki beltzeko ikuskizuna.



PASADAS LAS 4

## Haur jolasak

2009ko abendua Hilak 30, azteazkena 12:00etan (gaztelaniaz)

2010ko urtarrila Hilak 2, larunbata 18:00etan (euskaraz)

Lau eskuz jotako pianorako musika ikuskizuna, bi aktore eta objektu-manipulatzailea.

Musika: Georges Bizet.

Antzeleak: Belén Otxotorena, Inma Gurrea (gaztelaniaz), Izaskun Mujika, Patrizia Eneritz (euskaraz).

Piano-jotzaileak: Silvia Sucunza, Francesca Croccolino.



PREZIOA

20 ikasletik gorak

Argibideak eta ize

Telefonoa: 948 20

Ordutegia: 10:00-

CALEIDOSCOPIO

## Sesamo ireki zaitez!

2010ko urtarrila Hilak 3, igandea 18:00etan (euskaraz)

Antzerki beltzeko ikuskizuna.



DEABRU BELTZAK

## Nora zoaz, txanogorritxu?

2010ko urtarrila Hilak 4, astelehena 18:00etan (euskaraz)

Abenturak, katramilak eta abesti asko.



o taldeak: 3 €

n-emateak:

65 93

14:00



Ayuntamiento de  
**Pamplona**  
Iruñeko Udala



**Pamplona**<sup>20</sup>  
Candidata Capital europea de la cultura  
European Capital of Culture

GAYARRE ANTZOKIA  
UDAL FUNDAZIOA



FUNDACIÓN MUNICIPAL  
TEATRO GAYARRE

Avda. Carlos III, 3 31002 PAMPLONA  
[www.teatrogayarre.com](http://www.teatrogayarre.com)